

TOKIKOM

2016ko abendua | 165. zenbakia

aiKOR!

txorierriko aldizkaria

Turroiak Gabonetako beste izarrak



AIKOR.EUS





Lainomendi-ren Gabonetako ekitaldia
Urtarrilak 7 -18:30 -Derioko frontoian

LAINOMENDI **DERIO** **Derio**

Zorionak eta urte berri on!



TXIMINTX

Bisitatu gure bloga
www.blogari.net/tximintx



Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zaindu Berriak
Logopedia
Podologia
Kirpmasajio

clinica dental ZAINDUZ hortz klinika


Txorierri etorbidea, 9 - Lorja | Artea eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com



HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A.
DERIO
Telefonoa: 944 543 705



Estudios 10 Ikastegia

Kotxa Plaza, 2 - 4. D.
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19

Pakearen Plaza, 3 - behea
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 19



Ane Aretxabaleta

ile-apaindegia
aurretiko hitzordua
solariuma

9 4 4 5 4 3 5 8 0

Gorbea 8, Derio 48160



ESTANKOA Ana Artiñano Inchausti

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel/Fax: 94 454 15 41
anaarti @euskalnet.net




TXORIERRIKO AEK euskaltegia

Zorionak eta urte berri on!
Eutsi euskaraz berba egiteko konpromisoari

ae

Gorbea kalea, 5
48160 Derio
944 543 967
607 59 87 94
txepetxa@ae.eus

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **9** Irudietan... José Basilio Gómez, Katekoa
-  **10** aikor.eus webgune berria
-  **12** Gaztea eta... Nahún Iniesta, musikaria
-  **14** Baserri Antzokiko lehenengo kontzertua
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Turroiak, Gabonetako beste izarrak
-  **22** Euskararen Eguna
-  **24** Gabonetako egitarauak
-  **28** Txorierri ezagutu... Zamudioko ondarea
-  **30** Baratz komunitarioen erremedioa
-  **32** Aikorrizketa... Zer egin euskararen alde?
-  **34** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa



10 aikor.eus webgune berria eta parte-hartzaileagoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA**
Viceconsejería de Política Lingüística

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina eta Gaizka Eguzkitza

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Jon Goikouria, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Iñaki Eguskizaga, Asier Oruetxebarria, Igor García, Aner Mentxaka, Gaizka Peñafiel, Borja Basterretxea, Idoia Andrés, Juanjo Ortiz, Jose Angel Mentxaka, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Egun horretan, domekan, Carmelo nasai altzau zan berarentzat egun berezia izan arren. Gero, eguerdian, Sondikako futbol taldearen presidente hautatzeko batzarra eukien. Klubak justu 10 urte bete eta epe horretan jadanik 1946/47ko denporaldian ligako txapeldunordea geratu eta "I Trofeo Hierro" irabazi eban. Batzarraren bera aukeratu eben presidente. Bazan 1952ko ekainaren 15a.

Ordurako, futbola Errepublikan eukan indarra berreskuratzen ari zan, ez Frankismoak bultzatzen ebalako, bai zen eta ziur asko jenteak gudan jasan-dako oinazeak gaintitu edo sentimendu eta gurariak adierazoteko beste modu bat zalako. Gauza bera gertatu zan Europan II. Mundu Gerraren ostean. Txorierrin bilakaera horren adibideak, Sondika KT bera, Zamudio KT (1943), Uritarra KT (1947) eta Derioko GE (1947-1949) izan ziran. Lehenago sortuak be, Apurtuarte T (1926) eta Loiu KT (1928), hasi ziran barriz jokatzen garai hatan. Eta arriskutsua dala aitatzan danean, ez deusagu Apur-

tuarte izenari begiratu behar. Izen horrek ez dauka zerikusirik beste taldeen jokalarien buru edo hankakaz, bere sortzaileen talde bizi-iraupenaren zalan-tzagaz baino. Taldeak "apurtu arte aguantat dagiala", esan eban Juan Egañak. Eta Apurtuarte orain arte aguantat dau.

Arriskuren bat baegoan horko alde-tik be. Izan be, hasi-hasieran esaten zan futbolak zezenketez baino biktima gehiago eragiten ebazala. Baina benetako arriskua Marca (Donostia, 1938) astekarian agertzen zan J. Miquelarena (Bilbo, 1891-1962) kazetariaren eretxia: "II. Errepublikan futbola lurraldeko pasino bajuen eta zitaleen orgia gorria zan". Hori zuzentzeko, beraz, erregimenak obediencia, menderatze eta diziplina militarri ekin eutsen.

Hori dala-eta, Carmelok ez ekian bere agintaldiak oso denpora gitxi irau-ngo ebala, handik lau hilebetera, go-bernadore zibilak agindua, Bilboko Goi-

Joku arriskutsua



IÑAKI EGUSKIZAGA
(Abokatua)

Polizia-etxetik ofizio bat jaso eban, bera kargugabetzeko eta "bera baino berme politiko handiago"ko beste bazkide bat izendatzeko.

Bai arriskutsua Sondika KT erregimenerako!

Halanda be, 1953ko maiatzaren 24an Sondika KTko batzarrak barriro be aukeratu eban Carmelo Fano presiden-te.

Eskelak irakurtzen

Zorionez, denborak aurrera egiten dau eta nik hemen jarraitzen dot. Bizirik nago. Beharbada hasiera gogorra, baina holan da. Gero eta zaharragoa naz, hau ere, zorionez. Horren alenatiba askoz okerragoa da. Aspaldi onartu neban, edo hori uste dot nik, zahartzen ari nazala, jadanik ez nazala gaztea. Heldua nazala esango neuke, egia esan hoge urteko gazteakaz interes gitxi daukat komunean. Berrogei urteak pasatu neban, eta ordutik aurrera garriko, belaun... minak ugaritzen hasita daukadaz. Bazkal



ASIER ORUETXEBARRÍA
(Irakaslea)

osteko gin-toniken bihamuneko eragina be gero eta gogorragoa egiten jat. Eta oraindik, inoiz egin ez dodan gauza bat egiten hasia naz, egunkariko eskelak irakurtzen hasi naz. Konponbide bi aurkitzen deusadaz arazo horrerri. Lehengoa, nire adina eta estatus barria onartzea eta aurrera egin larregi pentsatu barik, eta bigarrrena "El Correo" ez irakurtzea. Zenbat eskela! Nire miopiarri kasu eginez nire adina ez onartzea aukeratu dot eta eskelak ekartzen dabezan egunkariak ez irakurtzea erabagi dot, baina horrek beste arazo bat dakarst, zer irakurri? "Marca"-zalea ez nenez, aukerarik onena duda barik, AIKOR! irakurtzea da.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txontent etorbidea, 9-4
413. bulegua
48102 Derio

Teléfono eta faxa
94 454 44 58
a.amondarain@bailak.net

Van Morrisonek Sondikan joko du BBK Music Legends Festival-ean



a: admin.taquilla.com

Belfasteko Lehoia 2017ko ekainaren 2 eta 3an egingo den Sondikako BBK Music Legends Festivaleko bigarren edizioako kartel burua izango da, Olako BBK zentroan. Baieztatu egin dute. Ekitaldia Dekker Events-ek antolatu du bigarren aldiz. Antolatzaileen hitzetan: "Jaialdiak toki garrantzitsua betetzen du Euskal Herriko musika eskaintzan, balio kulturalen kode berriak bilatzen eta musika adin guztietako pertsonen hurbiltzen".

Bigarren edizio honetan berrikuntzak izango dira: martxoan metroko 3. linea inauguratu eta, Bilborekiko konexioa arindu egingo da. Alde zaharretik (San Nikolas) Olako geltokira zazpi minutu baino ez dira egongo, trennez. Espero da 2017ko bigarren edizioak aurrekoa baino jendetsuagoa izatea, pasa den ekainean

500 ikusle egon zirelako ostiralean (Elliot Murphy, Los Lobos) eta 2.000 larunbatean (Jethro Tull, Graham Nash). Jaialdia BBK Music Legends zikloan jaio zen, eta 2011tik gaur egun arte Booker T. Jones, Manfred Mann's Earth Band, John Mayall, Jonny Winter, Marianne Faithfull, Rickie Lee Jones, Leon Russel... bezalako artistak igaro dira, eta pasa den urteko BBK Music Legends Festivalean Jethro Tull, Graham Nash, Elliot Murphy & Band, David Lindley eta Nina Hagen Band izan ziren, besteak beste. Van Morrisonen bigarren kontzertua izango da Estatu mailan, lehena 2017ko Primavera Sound Festivalen egingo du eta.

Van Morrison

Sei Grammy irabazi ditu Van The Manek, Them-eko taldekide ohiak. Azken talde honekin *Gloria* abesti arrakastatsua konposatu zuen. Azken lana *Keep Me Singing* da eta 60. hamarkadan zuen folk-soul-jazz-rythm & Blues estiloa mantentzen du. George Ivan Morrison Belfasten jaio zen (Ipar Irlanda) 1945eko abuztuaren 31n. Txorierrin egingo den jaialdiaren bi eguneko sarrerek 80 euro balioko dute urtarilaren 6ra arte, prezio 'onargarria' kontuan izanda 2015ean Euskalduna jauregian egindako kontzertuaren prezioa 75 eurotik 310era bitartekoak izan zirela.



a: Idoia Andrés

Women in Black III

Larrabetzuk Women in Black ekitaldia egin zuen hirugarren aldiz, azaroaren 27an, Zutunik! talde feministaren eskutik eta Udalaren laguntzarekin. 60 pertsona inguru bildu ziren herriko plazan: "Ekintza mundiala da, mundu osoan ezaguna", azaldu du Arantza Itziarrek, Berdintasun saileko zinegotziak. "30 emakume inguru etzan ziren lurrean eraso matxisten bidez urtero hiltzen dituzten emakumeak irudikatzeko. Horiez gain, beste 30 pertsona egon ziren zutik, performancean parte hartzen". Etzanda emakumeak izan ziren, hurrekin: "Umeak, neskak zein mutilak, biolentzia matxistaren ondorioen biktimak dira". Iñigo Gaztelu alkateak herriaren partaidetza eskertu eta emakumearen indarkeriaren aurkako ekimen honen izaera positiboa aldarrikatu du.

Bestalde, Zamudion ere egin zen Women in Black ekimena, Udalak kontzentrazioa egin ostean. Kasu honetan, EH Bilduk antolatu zuen, eta zamudioztar askorentzat ezustekoa izan zen, hainbat emakumen lurrean etzanda ikustean.

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontuak doan
- Especialitatea: umeak

Urbe 7. behea
48160 DERIO (Bizkaia)

ARINKA KASTEGIA
Goiko kalea, 6 DERIO

LH - DBH - BATX.
INGELES - MARRAZKETA
ERROBOTIKA
TAILERRAK / ESKOLA LAGUNTZA

944 544 753 695 78 77 74
www.arinkakopitenda.com arinkaikastegia.blogspot.com

ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 85
639 57 98 48 - 639 58 25 47

MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE GAINEKOAK OSTRAN HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

BIZKARGI
TABERNA ETA JAKARIA

Urkiola, 6 DERIO 944541655



Zarama gutxiago eta birziklatze gehiago

Enviser enpresaren arabera, azken urteotan larrabetzuarrek gero eta gehiago birziklatzen dute. Txorierriko zarama gutxien produzi-tu duen herria izan da, horrela adierazi du Enviserrek egindako azken zarama pisaketak: urtebetea zarama gutxiago sortu du Larrabetzuko (12.169 kilo astero, 2016ko urrian) pasa den urtearekin alderatuta (12.372 kilo, 2015eko urria). Txorierri 189.320 kilo satsa produzitu bada aurten, astero, Larrabetzuko % 6,4a sortu du, aurreko urtean baino % 0,3. Horrez gain, birziklapen tasa altuena izan da beira, edukiontzi eta kartoizko produktuekin.

Laburbilduz, berri onak izan dira Txorierri guztirako 2015eko datuekin alderatuz: Lezama (-% 0,2), Loiu (-% 0,6), Sondika (-% 1,0), Derio (-% 1,4). Albiste txarrak Zamudioren kasuan, 2015ean 48.070 kilo zarama sortu bazituen astero, 52.232 kilo zarama egin ditu aurten: iaz baino % 1,4 gehiago.

Larrabetzu Haurren Hirian murgildu da

a: Escola Francesco Tonucci

Larrabetzuko Udalak, Azaroko plenoan, Gobernu taldeak proposatuta, Haurren Hiria proiektuari argi berdea eman zion eta Haurren Hirien Sarean aho batez sartzea onartu zuen. Haurren Hiria Haurren Hirien Sarea (UmHerri sarea) Innobasquek sustatutako proiektua da, Herri Laborategiarekin elkarlanean dagoena. Ekimen hau Francesco Tonucciren Haurren Hiria (*La città dei bambini*) proiektuarekin lotuta dago, hiria "haurren" parametrotik aldatzeko proiektu politikoa. "Begirada aldatzea edo begirada haurren al-tuerara arte jaitea, inor bistatik ez galtze-ko".

Larrabetzuren kasuan, umeez osutako alkatezaren kontsultarako organoa sortzea planteatu du Udalak: "Ardura politikoa daukagun pertsonok Larrabetzu beste ikuspuntu ez-berdin batetik ikusten ikas dezagun, eta bestalde, haurrentzako parte-hartze esperientzia eskaintze-ko", adierazi dute du Inigo Gaztelu al-kateak.

"Alde batetik, umeen parte hartzea oso garrantzitsua da, orain arte herri osora heltzea oso zaila izan delako. Beste alde batetik, askotan umeen ikuspuntua baztertzen da, eta berez haurrek ikuspuntu oso integrala dute: ez dute eurentzat soilik pentsatzen, baita mundu guztiarentzat ere", azaldu du.

Udalak sei-zazpi hilabete zeramatzan Innobasquerekin kontaktuan. "Proiektu hau urteak daramatza Leioan eta guk ere parte hartzea erabaki genuen", azaldu du Gazteluk. Udalaren asmoa eskolako umekin elkarlanean aritzea da: "Umeez osaturiko kontseilua sortu nahi dugu eta Udalarekin hilabetea behin batzea, euren proposamenen gainean aritzeko".



Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Zureko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisena, 2 - Belako Elkarte, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

elekma

LARRABETZUEN SA7 DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BEHARRA TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXARRAK

Leherengo markak • Prezioari onak

BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txorien etorbidea, 25-3 H • 48180 LOIU
T: 944 539 232
www.elekma.es

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

karregandik gorta

ARROKULARITZA - TANAZIOA
ALOKATZEAK - ENKUALDATZEAK
SALEROKETAK
SEGUROR BILBAOREN AGENTZIA

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

TURREGOTTI
JATETXEA

Lauroeta etorbidea, 27
48180 LOIU-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregotti.com

Ford Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31



a: Borja Basterretxea

Eneko Goiriena eta Alain Peña, Zamudioko IV. rallyko txapeldunak.– TC2-3-4 eta 8ko marka onenak eskuratu ostean, Eneko Goiriena eta Alain Peña Zamudioko IV. Rallyko irabazleak izan ziren euren BMW M3arekin. Hasieran, Txus Jaiok eta Jesús Urkidik menperatu zuten lasterketa euren BMW E30 FL-arekin, baina arazo teknikoak zirela eta (balaztak bustitzen zituen olio-ihesa eta bestelakoak) hirugarren postuan bukatu zuten.



Loiuko 2017ko aurrekontuak

Datorren urtean 3.381.047 euroko aurrekontua izango du Loiuko Udalak, 2016an baino % 1,63 gehiago. EAJren aldeko bozkek izan ditu, eta EH Bildu eta PP alderdien kontra. Josu Andoni Begoña alkatearen esanetan, "hurrengo urtean, Udalak 100.000 euro bueltatu beharko ditu Udalkutxa Udal finantziario fondora. Hala ere, horrek ez du esan nahi Udal kontuetan murrizketarik egongo denik".

EH Bilduko Koldo Urizarbarrenaren esanetan, "herritarrek ez dute ia parte hartzeko aukerarik izan". "Kudeaketa ekonomikoa baloratzen dugu, baina taldeen parte hartze zuzena faltan dugu". PPren aldetik, Germán Diagok zorrozatasuna leporatu dio Udalaren erabakiari: "Aurrekontuak kontu gehiegiz egin dira. Zorrotzeiak izan dira, eta kontuan izanda martxoan egonkortasun ekonomikoa izango dela, hirigintza proiektuetan eta instalazio publikoetan inbertitu beharko litzateke". Honen aurka, alkateak azaldu du momentura arte bi alderdikoez ez dutela inolako proposamen edo proiektu alternatiborik aurkeztu.

Aurrekontuaren heren bat Txorierriko Mankomunitatea finantzatzeko erabiliko da: garbiketa publikoa, hondakinen bilketa, euskararen bultzatzea, zerbitzu sozialen prestazioak eta Behargintza bitartez enplegua bultzatzea. Kontuan hartu beharreko beste inbertsio bat BOEak gartzekoa da. Gainera, "Aurrekontu berriaren helburu bat langabeziaren tasa % 10aren azpitik kokatzea da", azaldu du Josu Andonik. "Udal gastua ekipamendu berriak ezartzeko erabiliko da". Zenbait lan egingo dira hurrengo hilabeteetan: padel pistarako estalkiaren eraikitzea, haurrentzako zonalde berrien irekitzea, inguruetako auzoen espaloien eraberritzea, herriko zentroa Zamarripa auzoarekin konektatuko duen bidegorriaren eraikitzea eta Kultur Etxearen eraberritzea.





**Ospatu gurekin
eta Dj-ekin**

**Gabon Gaua
Gabon Zaharra
Erregeen gaua**

Erremonterri, 8
48150 SONDIKA
944 532 592
652 732 584



Folklorea errege, Baserri Antzokian

Aikok garaiko folkloreaken erakusketa egingo du urtea bukatu baino lehen. Hilaren 30ean, 19:00etan, Baserri Antzokia Dantza programari hasiera emango dio erromeria saio batekin, helburua garai batean plazetan dantzatzaren ziren gogoratzea izanik. Horretarako, Aiko dantza-irakasle modura arituko da. Hilaren 31tik urtarila bukatu arte, Iñaki Andrések Aiko taldeko erromerietako jarraitzaile eta dantzarien Dantzazaleak argazki-erakusketa egingo du.

Bestalde, urtarilaren 3an Jota Eguna egingo da, eta 18:00etatik 20:00etara tailerra egin ostean, Durangoko Azokan izandako Jotamentala dokumentala proiektatuko da. Filmak Jotaren historia kontatuko du, perspektiba askotatik.

Urtariletik ekainera dantza eta kantu ikastaroak antolatu dira Baserri Antzokia Dantza programan. Dantzari ibiltaria izeneko ikastaroa eskainiko du Xabin Bikandik asteartero.

Produktuen bilketa, Siriara bidaltzeko

Abenduaren 26, 27 eta 28an 17:00etatik 20:00etara deialdia egin da Lezamako Aretxalde 80an (Correoseko bulego zaharrean), Siriara materialea bidaltzeko. Ekimena Ixone Ibarluzea Picok egin du Madrilgo Asociación de Apoyo al Pueblo Sirio elkartearekin elkarlanean. "Denetarik jasoko da bertan: elikagaiak, mantak, botak, botikinak, eskolarako materiala, konpresak, fardelak, xanpua, biberroiak...", adierazi du lezamarrak. Badira onartuko ez diren produktuak: txerrikiak, arropa, medikamentuak eta desegokiak izan daitezkeen jostailuak.

Urtarrilean ekimena errepikatzeko asmoa du Ixonek, baina datak eta tokia

zehaztu barik daude: "Era honetako proiektuetan inplikazioa behar da, behar duenari ahal den heinean laguntzeko", azaldu du.

Zer bidali:

- Elikagaiak: pasta, lekaleak...
- Mantak, botak.
- Botikina: bendak, gasak, muletak...
- Konpresak, fardelak, xanpua, biberroiak...
- Eskolako materiala eta jostailuak.

Informazio gehiago:

<http://www.aaps.es/>



ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

IRATXO
gozotegia

tarta pertsonalizatuak
trufak
leixak
pastelak
pastak

Mikel Zurro, 2 - 3. lonja • Sondika, 48150 • 94 443 89 19

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, beheka B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com



José Basilio Gómez | Kateko saltzailea

Txorierrik lo egiten duen bitartean, egunsentiko 04:00etan, José Basilio Asuako Katean daukan kioskora heltzen da: lehen egunkariak zonaldeko tabernetan banatu ostean, Kateko rotondan sartzen da, autoen artean, lanera doazenei egunkariak zuzenean saltzera. Errepideko salmentak bukatzean kioskora doa, 13:00etan negozioa itxi arte. José 1982an hasi bazen ere, lehenago amaren lehengusu batek zeraman kioskoa: "Aspaldian 300 egunkari inguru banatzen ziren egunero. Gaur, ostera, 180 inguru", adierazi du saltzaileak. "30 urtetik beherako gazteek ez dute egunkaririk erosten, interneten dena dagoelako. Horrekin gutxi bagenuen ere, gaurko gasolindegiek denetarik saltzen dute. Hau ez da lan egitea, hau biziraupenaren borroka da".

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
jongoikouria.com
instagram.com/jongoikoh

48195 LEZAMA Biskaya Carretera auton. 36

S.A.T. LEGU
SERVICIOS LEGALES DTS DESO-LENDERRAZ

Fu. 94 455 64 17 Tx. 94 455 61 98

GOXO-GOXO LOHIZUN

Arratsaldeko zabalik
Ogile egutuerak
Pestakak nabaratu

Garsiotza, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohizun@hotmail.com

lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

servicio de urgencias
24h

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis 48196 Lezama

Berria eta parte-hartzaileagoa



Totoan Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioak 2002an jarri zuen martxan AIKOR! aldizkaria. Proiektuaren ardatz nagusiak izan dira: euskara sustatzea eta herritarren ekimenen berri ematea. Egitasmoa sendoagoa egiteko, 2007ko otsailean, Totoanek beste urrats bat egin zuen irakurleengandik are parajeago ibiltzeko, eta aikor.com webgunea sortu zuen. Orain, 2016. urtean, webgunea berritu dugu eta aikor.eus jaio da. Webgune berria modernoagoa da eta erabat egokitzen da gaur egungo beharrianetara. Gainera, erabiltzaileek parte-hartzea bultzatuko du.

Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: 30 euro _____ Beste bat _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

Orri hau helbide honetara bidali:

AIKOR! Aldizkaria

Aresti kalea 2, beheka - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOTAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko balmena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEKA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

Webgune berriaren lehenengo alda-keta izena bera da, hau da, *aikor.com* izatetik *aikor.eus* izatera igaro da. Domeinu berria, .eus, euskara eta euskal kulturaren komunitatearen Interneteko lehen maila-ko domeinua da. Era berean, tresna bat da, euskara beste hizkuntzen mailan koka-tzeko, euskara normalizatzen laguntze-ko eta euskararen herriari nazioarteko aitortza eskaintzeko. Gaur egun, 6.000 enpresak, pertsonak eta erakundek dute .eus domeinua. Hala ere, nostalgikoek edo despistatuek jarraitzen badute *aikor.com* idazten nabigatzailean, helbide horrek berdin-berdin bideratuko ditu *aikor.eus* helbide berrira.

Baina domeinuarena aldaketarik txi-kiena baino ez da. Webgune berriak batez ere gure irakurleen parte-hartzeari eman nahi dio garrantzia. AIKOR! aldizka-riak beti izan du hainbat kolaboratzailek osatutako sare bat bere inguruan, eta webgune berrian jarraipena eman nahi diogu sare horri. Horretarako, hiru erabil-tzaile mota izango ditugu. Lehenengoak, AIKOR! aldizkariko langileak, webgunea-ren administratzaile arituko dira. Orain arte gertatzen den moduan, eurek eraba-kiko dute zer, non eta noiz eskegi albiste edo artikuluren bat.

Beste multzo biak txorierritar guzti-guztiei daude irekita. Batetik, inplikazio txikiena duenak izena eman dezake web-gunean, eta ondorioz, iruzkinak idatzi ahal izango ditu albisteetan; bestetik, inplikazioa handiagoa duenak webgunea hornitu ahal izango du, eta bertan, "Komunitatea" atalean hain zuzen ere, albisteak, bideoak eta abarreko kontuak eskegitzeko gaitasuna izango du. Kolaboratzaile egiteko, administratzaile-ek eman behar dute baimena.

"Komunitatea" atal hori da webgune-aren nobedade garrantzitsuenetariko bat. Aurreko webgunean txokoen atala zegoen, Txorierriko taldeen blog antzeko

Webgunearen irakurleak webgunaren hornitzaile egiteko aukera izango du

tresna bat. Gaur egun, ordea, alde batera utzi ditugu txokoak, eta "Komunitatea" sortu dugu, han eskualdeko elkarteek, enpresek eta norbanakoek albisteak, bi-deoak edo oharra eskegitzeko. Beraz, webgunearen irakurleak webgunearen hornitzaile egiteko aukera izango du. Esate baterako, balarako futbol taldeek euren partidaren kronikak idatzi ahal izan-go dituzte; edo dantza taldeek euren saioen berri eman ahalko dute; edo men-di taldeek oharra plazaratu ahal izango dituzte. Eta administratzaileek interesga-rrizat jotzen badute "Komunitatea" atale-an dagoen edozein edukiera, webgunea-ren lehenengo orrian bertan argitaratu ahal izango dute. Totoanek gonbita egi-ten die txorierritarrei *aikor.eus* webgune-an parte hartzeko.

Erabilgarriagoa

Webgunearen berrikuntza praktikorik garrantzitsuenak izaera *responsive* edo moldagarria da. Behar bezala moldatzen da gailu mota askotara: ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, tabletak eta, bereziki, sakelako telefonoak. Kontuan izan dugu gaur egun erabiltzaileen % 50ek baino gehiagok sakelako telefo-noaren bidez ikuskatzen dituztela komu-nikabideak. Webgune berriak tokian toki-ko komunikabideen ereduari jarraitu dio diseinu aldetik.

Horregatik, *aikor.eus* modernoagoa eta erakusgarriagoa da. Betiko zerbitzuak eskaintzen jarraitzen dugu: agenda, ar-gazki galeriak, AIKOR! aldizkaria pdf for-matuan, Aikorlagun egiteko ziurtagiria, paperean idatzitako artikulua eta albiste guztiak... Gainera, irakurleek zerbitzu be-rrri batzuk topatuko dituzte: zorian-agu-rrak, eskelak, audioak eta bideoak txerta-tzeko aukera... Era berean, administratzaile-ek, besteak beste, inkestak, lehiaketak eta elkarrizketak online antolatu ahal izango dituzte.

aikor.eus webgunea
erakargarriagoa da eta
erabiltzaileak bertan
parte-hartzeko aukera
handiagoa izango du



"Tributoak ikusteko ohitura galdu b

NAHÚN INIESTA VÁZQUEZ | musikaria

Musikarekin izandako lehen kontaktua kitarrarekin izan bazen ere, pasioa baterian topatu zuen 21 urte zituelarik, Derioko Larrabarri baserriko entsegu lokalean. Gaur, Nahún Iniesta Vázquez Madrilen dabil fisioterapiako azken urtea egiten. Bertan ere Kontrol - M izeneko musika taldean dabil bateria jole. Laster euren lehen diskoa kaleratuko dute: *Mentiras y otras Verdades*.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Nola hasi zinen musikan?

21 urtekin hasi nintzen bateria jotzen, Derioko Larrabarri baserriko entsegu lokalean. Bateria doan uzten zutela konturatu nintzen, eta ez nuen denborarik galdu. Hasiera batean bakarrik hasi nintzen jotzen, irrati bat eraman ohi nuen eta entzuten nuenaren gainean jotzen nuen.

Lehen kontaktua izan zen?

Ez, urte batzuk lehenago kitarra jotzen hasi nintzen, baina bertan behera utzi nuen. Bukatu egin zen.

Zelan bizi da musika gure bailaran?

Toki askotan izan naiz, baina Txorierin ikusi dudana paregabekoa da: doanekoa, ekipo onak daude bertan, oso ondo zaindua, ordu asko daude libre eta giro berezia da bertan. Erabat gomendagarria. Eredugarria da: horrela izan beharko litza-teke toki guztietan. Plasentzian badago

*Derioko
Larrabarri lokala
paregabekoa da:
doanekoa, ekipo
onak daude bertan*

antzeko lokala, baina egoera tamalgarririan, bertan behera utzita.

Zer egiten ari zara momentu hone-tan?

Oraintxe bertan Madrilen nabil fisioterapiako laugarren urtea bukatzen.

Zer dela eta Madrilen?, herrian ere badira fisioterapia zentroak.

Nota altua atera behar zen, eta Madrilera etorri behar izan nintzen, unibertsitate pribatu batera. Dena dela, jendea eza-gutzen nuen alde zaureratik bertan, eta ez da hain zaila izan bertora etortzea.

*Askotariko influentziak
dauzkagu: Black
Sabbath, AC/DC,
Platero y Tú, Leño,
Extremoduro...*

Zer dela eta fisioterapia?

Egia esateko askotariko lanetan aritu naiz: pizzak banatzen, biltegi-lanetan, gauetan eszenatokiak muntatzen, publizitate-lanetan... egun batean masaje ikastaro batzuek arreta deitu zidaten. Zergatik ez? Horietan izena eman eta masajista bezala hasi nintzen lanean urtebetez, autonomo bezala. Urte horren ostean jakintza zabaltzea erabaki nuen, eta unibertsitatean hasi nintzen jo eta su.

Ikasketez gain Kontrol - M taldean zabilta



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

eharra dago"

Kontrol - M izena Luisek (baxuak) proposatu zuen. Bankuek daukaten transakzio sistema da, hacker askoren ametsa, antza. Berez askotariko influentziak daukagu: nazioartean Black Sabbath, AC/DC, Muse, Metallica... eta Estatu mailan Extremoduro, Platero y Tú, Leño, La Cabra Mecánica... Taldea berez Luisek eta Javik (kitarrak) osatu zuten eta abestiak zituzten. Orain hiruron artean konposatzen ditugu abestiak.

Album berria publikatzekotan zaudete, ezta?

Mentiras y otras Verdades deitzen da, eta Rock Palacen (Madrilgo aretoa) jotako abestien grabaketa da. Estudio batean sartu ginen bateriak grabatzeko, eta gai-nontzekoa gure kabuz grabatuko dugu.

Non jotzeko asmoa duzue?

Extremaduran, Salamancan eta Huelvan izan gara. Euskal Herrian Bizkaiko zenbait tokitan jotzeko asmoa daukagu. Txorierriko Baserri Antzokian jotzeko irrikitan gaude. Gainera, 2017ko uztaillean Perú eta Ekuadorrera joateko asmoa dugu, bertan kontaktuak dauzkagu-eta.

Zelan bizi da musika Madrilen?

Gaizki xamar. Alde batetik, toki asko daude jotzeko, baina bertan jotzeagatik ordaindu egin behar da beti. Diru kopuruxikia eskuratzeko edo ordaintzeko kapitalek irten egin behar da. Gutxi barru Oporton joko dugu (Madril), eta kapitaleko ingurueta bada bizikletaz mugitzen



naiz zentrotik ingurueta, errentagarritasuna lortzeko. Oztopo asko daude bidean.

Musikari bezala zer aldarrikatuko zenuke?

Tributoak ikusteko ohitura galdu beharra dago eta talde berriak ikusten hasi behar gara.

Bi bandetara ari zara jokatzeko: musika batetik eta fisioterapia, bestetik.

Bi gauzak konbinatzea gustatuko litzaidake. Nire lan propioa izateaz gain, asteburuak musika egiten ematea gustatuko litzaidake, etengabe.

Zer egingo duzu karrera bukatu bezain pronto?

Ateak zabalik daude. posible da etxera bueltatzea. Musika proiektua Madrilan izan arren, bateragarria da Txorierriko bizitzarekin.



Urtzagale Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEIRO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produktzioaren Programazioko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

Musikaren aro berria, Txorierrin

a: Igor García

Azaroaren 26an, Txorierriko Baserri Antzokiak eszenatokia estreinatu zuen lehen kontzertuarekin. 23:00etan, Moikave rock blues taldeak ordu eta erdiko kontzertua eman zuen ohol gainean. Rock-blues power hirukoteak inauguratutako kontzertuak ateak zabaldu dizkie Txorierriko musika taldeei.

Txorierrin haran musikazalea bada ere, bertako taldeek faltan botatzen zituzten mugarik gabe jotzeko aretoak. Tabernak egon badaude, baina, libre jo ahal izateko, kafe teatroaren lizentzia behar dute, eta horrek, sekulako kostua izateaz gain, tabernetan obrak egitea dakar askotan. Urriaren 5ean, Baserri Antzokiko ateak zabaldu ziren eta, ostalaritza zerbitzua eskaintzeaz gain, musikari mugagailua kendu dio.

Eszenatoki erraldoia, soinu teknikari paregabea eta egurrezko barrutiak eskaintzen duen akustika paregabea: "Benetan eskertzekoa da Baserri Antzokiak eman dizkigun erraztasunak. Pozik bueltatuko ginatke bertara jotzera", adierazi dute Moikave rock-blues taldeko indiarrek. Derion Txorierriko Mankomunitatearen Larrabarri baserria dago, eta bertatik igaro dira Txorierriko talde gehienak. "Ez dago zertan harana goitik behera arakatu gure herrietako musika taldeak topatze-



ko", azaldu du Moikaveko baxu jole Jon Goikouriak. "Makina bat estilo jorratzen dira Txorierrin, rapetik rockera. Begiak irekitzea baino ez dago hau ikusteko".

Bai bertokoak, bai kanpotarrak izan, Baserri Antzokiko musika parrila kudeatzeaz arduratzen diren Gaizka Sainz eta Gorka Urrutia ostalariek argi dute: bertako eta kanpoko musika taldeei bultzada eman nahi diete, eta proiektu honekin

duela gutxi hasi badira ere, asmo handiko musika eskaintza eskaini nahi dute: "Gure asmoa hilean behin kontzertu potoloa eskaintzea da, haraneko gonbidatuen laguntzarekin", azaldu du Gaizkak. "Izugarri gustatuko litzaiguke, horretaz gain, aste-buru guztietan bestelako taldeen kontzertuak eskaintzea: sarrera txiki baten truke bizpahiru kontzertuz gozatzeko". Horren truke, antzokiak sarreraren bidez lortutako dirua eta bestelako zerbitzuak eskainiko dizkie taldeei: "Eszenatoki handia, soinu-teknikaria, afaria eta taldeen promozio zerbitzua sare sozialen bidez", azaldu du Gorka Urrutiak.

Etorkizunari begira, Baserri Antzokiak jaialdi txikiak eskaintzeko aukera aurreikusten du jada: "Uda momentu ezin hobe da terrazan kontzertuak eskaintzeko, eta bestelako ekintzak egitearen aldekoak gara", azaldu dute ostalariek.

"Asmoa hilean behin kontzertu potoloa eskaintzea da, haraneko gonbidatuen laguntzarekin"

"BANek eszenatoki handia, soinu-teknikaria, afaria eta taldeen promozioa eskainiko die taldeei"

TABERNA GAZTEDEI
Eguneko menuak
Ospakizunak
Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Enaitz
TABERNA
Ogitartekoak 94 455 42 15
Anoak Garaioltza, 74
Plater konbinatuak 48196 Lezama

BOLALEKU
JATETXEA
10. URTEPERENA
Garaioltza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jantzi Facebooken
• Hainbat menu
• Karta
• Ospakizunak
• BOLAPARK

Rockaren azken indiarak

2014an jaio zen Rock Blues taldea izan da Baseri Antzokiko musika eskaintzari hasiera eman ziona azaroaren 26an. Power hirukoteak *La Fiebre del Oro Negro* bigarren diskoa aurkeztu zuen bertan, 40 pertsonaren aurrean: "Suzko proba izan zen: Baseri Antzokiko lehen kontzertua izan bazen ere eta probetan ibili baginen ere, uste baino jende gehiago hurbildu zen gurera larunbatean", adierazi du Gaizka Sainzek: "Areto handia eta sabai altukoa izan arren, kontzertuak soinu oso ona izan zuen eta giroa izan zen bertan".

Bi orduko kontzertua eskaini zuen Santanderko David Moikavek (ahotsak eta gitarra), Santutxuko Ibai Velázquezek (bateria eta ahotsak) eta Sondikako Jon Goikouriak (baxua eta ahotsak) osaturiko formazioak, 60ko eta 70eko hamarkadetakako rock-blues estilokoak gehienbat. Kontzertuan, *Hora Magora* lehen diskoko eta atera berri duten *La Fiebre del Oro Negro*ko abestiak entzun ahal izan ziren. Lehen kontzertu honetan 40 pertsona hurbildu ziren, den-denak Txorierrikoak eta ingurukoak.

Info gehiago:

www.moikave.com

facebook.com/moikave

nomadautiermpo@gmail.com



ERREKA **ONDORIO**
JAT **ETXEA**

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

sarrerren salmenta
www.bbk.es
bbk

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ZINEA

VILLAVICIOSA DE AL LADO
EG-12 (2D)
Urtarrilak 8, 19:30

VAIANA
113' AG (2D)
Urtarrilak 8, 17:00

PIXI, POST ETA OPARIEMAILEAK
AG (2D)
Urtarrilak 15, 17:00 (EUSKARAZ)

IGELAK
AG (2D)
Urtarrilak 15, 19:30 (EUSKARAZ)

RIBBIT
84' AG (2D)
Urtarrilak 22, 17:00

ROGUE ONE: UNA HISTORIA DE STAR WARS
133' EG-7 (3D)
Urtarrilak 22, 19:30

¡CANTA!
108' AG (2D)
Urtarrilak 27, 17:00

BELLEZA OCULTA
94' AG (2D)
Urtarrilak 29, 19:30

ETA OTSAILEAN...

ORM EN EL REINO DE LAS NIEVES
BLINKY BILL, EL KOALA
LOS DEL TUNEL
ES POR TU BIEN
BALLERIN



Gero eta ikasle gehiago, “Ezagutu Aukeratzeko” programan

Programak batxilergoko Txorierriko
gazteak lan munduan orientatzea du helburu

Batxilergoko 88 txorierritarrek hartu dute parte Mankomunitateko Gazteria Sailak antolatzen duen “Ezagutu Aukeratzeko” programaren zortzigarren edizioan. Horrek lan munduaren egungo errealitatea ezagutzea du helburu, ikasketak eta lanbidea aukeratzeko. Aurten, programak proposamen ugari dakartza. Bestekak beste, enpresetan egonaldiak egitea lan-munduaren errealitatea bertatik bertara ezagutzeko eta “profesionalekin esperientziak izatea”, profesionalek gazteen galderari erantzun diezaieten eta gazteek ikus dezaten zalantza horiek izatea normala dela.

Hala, aurten, Derioko Institutuak Xabier Diez Btek enpresako zuzendaria gonbidatu du. Hark azaldu du ingelesak garrantzi handia izan duela bere ibilbide profesionalean. Bestalde, Leire Abaigar Gariza Films enpresako ekoizleak lasaitu egin ditu zer egin ez dakiten gazteak. “Garrantzitsuena geldirik ez egotea da, gauza asko egitea, zer nahi duzun aurkitzen duzun arte; izan ere, azkenean, denak zentzua hartzen du”, esan du. Iñigo Mazo

Egaz Txorierriko ekintzailetzako ardura-dunak garrantzia kendu dio oker aukeratzeko beldurrari. Berari horixe gertatu zitzaion: Zientzia Fisikoak ikasten hasi zen, eta ikasketa horiek bertan behera utzi zituen, benetan gustuko zuenari ekiteko, Ekonomia eta Enpresa Zientziak.

41 enpresa

“Ezagutu Aukeratzeko” egitasmoak Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza jasotzen du, eta Egaz Txorierriko kudeatzen du. Egitasmo horrek enpresetara bisitaldiak ere eskaintzen ditu, eta aurtengo edizioan Derioko Elizaren Historia Artxiboa, Gaiker teknologia-zentroa eta Basurtuko ospitaleko bost lan-arlo (azelerazio lineala, laborategia, farmazia, sukaldia eta ebakuntza gelak esterilizatzea) bisitatu dituzte. Gainera, lanbideen nondik norakoak hurbiletik ezagutzeko egonaldiak sortu dituzte. Egonaldi horien bitartez, ikasleek goiz bat eman dezakete beren gustuko sektoreko profesional batekin. Aurten, 41 enpresak eta erakundeak hartu dute parte.

Zortzi urte hauetan, egitasmoa izugarri sendotu da. Gainera, aukera bikaina da gazteek lan-arloan zer eskaera dituzten ikusteko. Ikasleek beti izaten dute interes handia irakaskuntzan, mekanikan, industria-diseinuan, osasun-arloan, segurtasunean eta ordena-indarretan; horrez gain, aurten, ezustekoak ere izan dira, ikasleek interesa adierazi baitute zuzenbidean, kriminologian, auzitegi-medikuntzan eta itsasoko erreskatean.

Abendurako, sektore-mahaiak programatu dira ZIVeko Arantzarekin eta IDDTek enpresako Irene Rodríguezekin; argindarraren eta mekanizazioaren munduko profil guztiak eskainiko dituzte. Btek enpresaren jardunaldian, Marivi Cuartango, Politeknikako Orientazio Saileko ardura-duna, Alex Loustaunau, eskualdeko enplegu-arloko arduraduna, eta EHUko Ingeniaritza Saileko koordinatzailea izango ditugu. Hitzaldi horren helburua izango da gurasoei beren seme-alabentzako irteera profesionalak aurkeztea. Halaber, Euskotren eta Ormazabal ere bisitatuko dituzte.



100.000 euro hilean, gaika bereizten ez diren hondakinak biltzeko

Hiri-hondakinak kudeatzeak eragin handia dauka ingurumenean eta gainera, kostu ekonomiko handia ere badakar. Txorierriko Mankomunitateak 99.787,90 euro gastatzen ditu hilero (BEZa barne) gaika bereizten ez diren hondakinak biltzen eta garraiatzen. Eta 2015ean soilik, Mankomunitatean 11.056,3 tona hiri-hondakin bildu ziren, nagusiki gaika bereizi gabe bildutako zaborra: 8.902,60 tona. Garbiguneetan utzitako hondakinak ez dira azken kopuru horretan sartzen.

Kopurua bajatu egin da azken urteotan. Esate baterako, 2007an, 12.699,84 tona hondakin batu ziren, 2016an baino 1,6 tona gutxiago. Hala ere, ezinbestekoa da denon artean lan egitea, hondakin horiek are gehiago murrizteko. Horretarako, Europako Ingurumenerako Agentziak hainbat ekimen proposatu ditu: elikagai prozesatuen eta aurrez prestatuen kontsumoa mugatzea; erabili eta botatzeko ontziak ekiditea; eta etxetresna elektriko txikien eta kontsumorako elektronika-ondasunen bizitza-zikloak ahalik

eta gehien baliatzea. Etxeko hondakinek ingurumenean duten eragina askoz ere gehiago txikiagotu daiteke gaika gehiago biltzen bada.

Illo honi jarraituz, Mankomunitateak espero du datozen urteotan urrats handiak ematea. Esate baterako, hainbat edukiontzi ditu, hondakinak gaika bildu ahal izateko:

–**Hondakin organikoak:** ogi, opilgintzako produktu, fruta eta prestatu gabeko barazki, fruitu lehorrak, kafe-hondar, inausketak eta abarren hondakinak. 2015ean, 65,80 tona bildu ziren edukiontzi marroien bidez. Kopuru horri, etxebizitza partikularretan egindako konposta gehitu behar zaio.

–**Berriro erabiltzekoak:** arropa, liburuak, gailu elektriko eta elektroniko txikiak... 2015ean, 93,55 tona bildu ziren.

–**Beira (edukiontzi berdea):** beirazko eta edozein koloretako botila, poto eta flaskoak uzteko. 2015ean, 508,59 tona izan ziren.

–**Papera eta kartoi tolestua:** bigarren hondakin-mota ugariena da (gaika

bereizi gabeko bilketaren ostean), eta, 2015ean, 1.006,44 tona bildu ziren.

–**Ontzi arinak:** plastikozko ontziak, fruten plastikozko sareak, polietilenoak, aluminiozko paper, poltsa eta moldeak, metalazko tapoiak eta briak biltzeko. 2015ean, 344,24 tona bildu ziren.

–**Etxeko olio erabilia:** 21 tona jaso ziren 2015ean.

–**Etxeko tresna handiak:** sofak, aulkiak, telebistak, xurgagailuak... Asteazkenetara biltzen dira, baina, horretarako, Udaleria deitu behar da aurretik, tresna horiek biltzeko eskatzeko. Bilketa doakoa da. 2015ean, 114,08 tona bildu ziren.

Gaur egun, gizartea kontzientziatua dago ingurumena zaintzeari eta errespetatzeari dagokionez. Nolanahi ere, eragile ekonomiko eta sozial guztientzat premiazko zeregina da oraindik ere alderdi horiek hobetzea eta, halatan, gure ekitzen edo ez-egiteen bitartez etorkizunean konponezinak izango diren kalteak saihestea.



2017ko
PROPOSAMENAK

ERRETZEARI UTZI?
BA
HORIXE!

ERRETZEARI UZTEKO IKASTAROA

OSAKIDETZAko sendagile eta erizain eta **PSIKOLOGO** adituen eskutik.

TOKIA: DERIOKO KULTUR BIRIKA

DATAK: Asteazkenetan, 19:00etatik 20:00etara, urtarrilaren 25etik martxoaren 15era arte.

IZEN-EMATEAK: Urtarrilaren 9tik 24ra. Mankomunitatean
(94-454.03.50 / ekt@txorierri.eu)

Altxor gozoak

Gogoko izan edo ez, Gabonak opor tradizionalak izan ohi dira familia gehienetan. Bai hemen, baita Txinan ere, eta ez da hitz egiteko modu bat. Ukaezina da garai hauetan batez ere, jan eta jan egiten dela. Mahaiak askotariko jakiez janzten dira: hestekiak, otarrainxkak, frijituak, saldak, arrainak, okelak... postreetan, osteran, polboroi eta bestelako gozoen artean, Gabonetako gonbidatu bereziak dauzkagu: turroiak. Zergatik dira baina, hain famatuak gure kolesterola hodeietara daramatzaten tableta formadun altxor gozo hauek?



t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Urtero, azaro amaieran eta abendu hasieran, gozoen industriak bultzada itzela izaten du. Gabonak bertan dira eta jaiegunetako menuak planifikatzeko ordua iritsi da. Urtez urte, jaiegunetako menuak hainbat aldaketa izan ditzake, baina bazkari eta afari guztietan badago elementu aldagaitz bat: turroia. Adituen arabera, familia bakoitzak 50 euro inguru ordaindu edo inbertitu ohi ditu hone-lako postreak erosten, eta salmenta gehien egiten diren hilabeteak azaroa eta abendua izan arren, badago urte osorako erosketak egiten dituenik ere.

Turroia ezitit eratorriko masa gozoa da, zuritu eta kiskalitako almedraduna, azukrearekin. Pasta hau oratu egin ohi da eta tableta zein torta forma eman ohi zaio. Orokorrean, Alacant, Xixona, Valentzia eta Lleida dira turroiaren sorlekua, eta, beraz, ekoizle nagusiak. Tradizioaren arabera, turroi nagusi bi bereiz daitezke: Xixonakoa edo 'biguna' alde batetik, eta Alacantekoa edo 'gogorra', bestetik. Lehenengoaren kasuan, almendrak birrinduta agertzen dira, eta oretsua izan ohi da. Turroi gogorraren kasuan, almendrak bistan daude. Alacantekoa ez da bakarra; Casinos-en (Valentzia) ere, era honetako turroia egin ohi da.

Lan asko ematen duen jakia da. Berau egiteko, kalitatezko osagaiak behar dira: almendrak ezinbestekoak dira, zapoetsuak eta handiak ahal bada. Hauek iraila eta urrian batu ohi dira



*Adituen arabera,
familia bakoitzak
50 euro inguru
ordaintzen ditu
postre hauetan*

penintsulako zenbait zonaldeetan. Bestalde, ezia behar da, eta konfidantzako saltzailearena bada, orduan eta hobeto. Gainontzeko osagaiak edonon topa daitezke: azukrea eta arrautza zuringoa. Ikus daitekenez, ez da batere zaila osagaiak topatzea; turroiaren zail-

tasunik handiena berau prestatzeko era da.

Xixona bezalako turroi on bat sortzeko lau zapabost egun behar dira, produktua fase askotatik igaro behar delako: laburbilduz, lehenengo eta behini almendrak gorritu behar dira. Turroi artisau askoren esanetan, hau da prozesuko zatirik garrantzitsuenak, artisau bakoitzak gehiago edo gutxiago gorritzen dituelako. Ondoren hozten utzi behar da. Gero, ezia, azukrea eta arrautza gorringoarekin pasta sortu behar da kantitate berezi batzuekin. Pasta prest dagoenean, Molí edo errota batetik igaro behar da, eta behar bezala birrinduta dagoenean irakiten jarriko da. Turroi artisau bakoitzak ondo baino hobeto ezagutzen du bere

Konekta zaitez gurekin!

aikor!
txorierriko aldizkaria

Facebook:
aikor.txorierrikoaldizkaria

Twitter:
@AikorTxorierri

Webgunea:
www.aikor.eus



turroia zein puntutan dagoen prest. Prozesu osoan denbora emateaz gain, pazientzia eta makineria berezia eta handia behar da.

Ivñez familia: erreferenteak

Azaroan Zamudion egin zen IV. Txokolate Azokan gonbidatu bereziak izan genituen gurean: Eladio eta Celina Ivñez turroi artisauek. Neba-arrebak Bilboko turroi denda famatuena daukate Posta kaleko 23 zenbakian, katedralaren parean. Bost belaunaldi daramatzate turroien negozioan. Zaila da denda jenderik gabe topatzea. Momentu honetan Bilboko denda-ostea kutxez betetzen ari da: Xixonako, Alacanteko eta txokolatzeko turroiak, mazapanak (elurrezkoak, gorringo kiskalitakoak, gorringoduna intxaurrekin...)...

XIX. mendeko bigarren zatian heldu zen Xixonatik euren familia Bilbora: "Nire birraititea Bilbora heldu zen eta bertan Victoria de Lecea familiako bilbotar bat ezagutu zuen, Bidebarrieta kaleko 7. zenbakiko jabea. Ataria alokatu zion, bertan negozioa ezartzeko". Garai hartan nego-

"Turroiak egitearen zatirik garrantzitsuena almendrak gorritzearen fasea da"

zio batzuk etxebizitza garrantzitsuenetarik atarietan ezarri ohi ziren, azken batean urtean bi hilabetetako iraupena zuten negozioak ziren, eta horretarako ez zuelako merezi kaleko lonja bat erosi edo alokatzea. Bartzelona, Madril, Malaga eta Valentzia bezalako hiri garrantzitsuenetako atarietan gauza bera gertatzen zen. "Hasiera-hasieratik Bilbo Handiko jendearen gustura moldatu ginen", adierazi du Celina Ivñezek. "Xixonako turroi bigunaren kasuan, bertako jendeak turroi findua gustuko du, zati handirik gabekoak". 1950ean, Posta kaleko 12. zenbakiko lonjara joan ziren, atarian ere, eta 1983ko uholdeak gertatu zirenean lehen pisura igo behar izan ziren.

"Eskuz egindako turroia garestia goa izan daiteke, baina kalitate aldetik ez dago alderik"

Turroi ona egitearen sekretua osagaien kalitatean dago. Onak badira, auke-ra gehiago izango ditugu turroi zaportsuak sortzeko. "Almendrak berak duen koipe mailak eta berauek gorritzeko puntu zehatza ezagutzea berebizikoa da" gaineratu du Celinak. "Segundu kontua da gorritze puntua egokia edo txarra izatea, paella bat egitean gertatzen den antzeko fenomeno da. Kontuan hartu beharreko hurrengo gauza almendra bera eztiarekin duen egosketa puntua da", argitu du andre artisauek.

Aurten, turroi kiloa (bai Xixonakoa, bai Alacantekoa) 31 euroan dago eta krisi garaian egon arren, dendak ez dauka atsedeen unerik: "Edonork eros dezake tu-



Etxean ere posible

Azaroaren 16an turroi ikastaroa eman zuten Pepelu Fernándezek eta Maite Ortegak Baserri Antzokian: "Ez dago alderik turroi artisauek eta guk egiten ditugun turroien artean: Baserri Antzokian gozotegietan ikus daitezkeen turroien antzekoak egin genituen: gorringozkoak eta intxaurrezkoak", azaldu du Maite Ortegak. Emaitzak ezberdinak izan arren, etxe-ko lapikoez baliatuz eta osagai arruntekin (almendrak, intxaurrak, gorringoa, azukrea, ura) bestelako turroi gozoak egin daitezke.

Baserri Antzokian 35-55 urte bitarteko 12 lagun izan ziren, turroiak egiten ikasten: "Prozesuaren nondik norako guztiak azaldu genizkien". Maite irakaslea da, baina turroiak egitearen grina herentziaz dator. Txikia zenean, amaren osabak turroiak egiten zituen Gabonetako oporretan kontsumitzeko. Ohitura hori belaunaldiz belaunaldi igaro da, eta gaur egun Maitek egiten ditu turroiak oporretan.





*“Badira Gabonetan
24 tableta
erosten dituztenak,
urte osoan
izateko”*

edota mendira doazenean”, azaldu du Eladiok. “Dosi txikiak dira eta edonora eraman daitezke, kontsumorako errazak”. Askotariko bezeroak dauzkate bertan: “Badira gabonetan 24 tableta erosten dituztenak, urte osoan zehar izateko edota udan zehar urtebetetzeren bat ospatzeko”, azaldu du Celinak.

Urteko bi hilabetetan bada ere, turroiek lan itzela ematen diete artisauei, eta Valentziako, Alacanteko, Xixonako edo Lleidak hirietako kaleetan egun hauetan bereziki turroi usaina gailendu arren, turroien mundua ez da hirirotara mugatzen; gozo honek negozio izugarria mugitzen du urte osoan mundu osotik, altxor hau zazpi haizeetara zabalduz.

urroi apur bat urtero”, adierazi du Celina Iváñezek. “Eskerrak eman nahi genizkieke urtero gabonetako erosketak bertan egiten dituzten bezeroei”. Eladiok argi dauka: “Eskuz egindako turroia garestiagoa izan daiteke, baina kalitate aldetik ez dago alderik: Xixonako artisauek irailaren hasieran jartzen dira harremanetan al-mendra eta ezti hornitzaile onenekin tu-

urroi onenak egiteko. Gure kasuan, 15 egu-nero turroi berriak dakartzagu Xixonatik Bilbora”, adierazi du harro turroi maste-rrak. Negozio tradizionala izan arren, turroi artisautzan ere badago tokoa ideia berrietarako: azken urte hauetan 100 gra-moko turroi tableta txikiak egiten dituzte Iváñezekoek: “kirolari batzuk tabletak eroan ohi dituzte txirrindulan ibiltzera



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA

Euskara ikasteko
Gogo sakonena.
Lehen urratsa edo
Berdin bigarrena.
Jaso sari eder hau
eta esker beroena.
Nahiz euskara bera den
Saririk onena.

Gabriel Etxebarria.

Zorionak!



Eta Uste Berri On



Edonon, edonoiz

a: Aner Mentxaka, Gaizka Peñafiel, Idoia Andrés

Euskararen Eguna abenduaren 3an izan zen eta horren haritik, euskal erakunde publikoek galdera hau zabaldu dute: "Zer egin dezaket nik euskararen alde?". Hasiera ona izango litzateke euskaldunok euskaraz edonon eta edonoiz egingo bagenu. Txorieritarrok hori baino gehiago egin dugu eta kalera atera gara, geure hizkuntzan bizi izateko eskubidea lau haizeetara aldarrikatzeko. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Lezaman ospatu zuen Euskararen Eguna eta horren inguruan hainbat ekitaldi antolatu zituen bertan: antzerkia, musika, bertsolariak, pailazoak, magia... Herritarrek eta bailarako euskara elkarteek ere egin zuten bat egun berezi horrekin.





**ARETXA
BALA**

**LARRABETZU
BIZIRIA**

**ETXEAN
GURA DOGUZ
GABONETAN**

ANDRA MARI KALEA
TEL.: 94 455 84 64



**LARRABETZUKO
BATZOKIA**

Eguneroko zeln asteburuko menuak
Menu bereziak

Askatasunaren enprantza, 3
94 455 72 94

IRUSTA TABERNA

EGUNEROKO MENUAK
GAUEZ / MUSIKA ETA PARRANDA

Gabonetan, etxean gura doguz

LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77



Moro's Pub

LA
GUN
KOR

aretxalde, 68 - 48196 Iezama
t. 944 556 538 - faxa 944 555 084
lagunkor@hotmail.com

AHOLKULARITZA FISKALA LABORALA KONTABLEA
ZERBITZU BULEGOA



ETORKI TABERNA

Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak

Andra Mari Kalea, 1
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU
(Bizkaia)



**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Móbilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Jatetxea

SAN ISIDRO

EUNKO OKULETAN ENPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOSKOGINTZA APARTEA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98
Fax 94 454 14 13

Mungaiako etorbidea, 25
48160 DERIO



EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55



**HAUR-MODA
TxIMELETA**

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak |
Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa |
Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen
deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Astintze kalea, 6-A, 1. solairua, 48.340 Derio
TEL. 94 424 38 34

Zamudio

Abenduak 23, barikua

–Gabonetako oporren hasierara. As-
teburuan zehar, gazteak Gazte Es-
tazinoa apainteko lotuko dira.

Abenduak 24, zapatua

Olentzero Eguna

–10:00: Gabonetako plater-tiro saioa,
Zamudio Ehiza eta Arrantza alkartearen
eskutik, Teknologia Parkeko tiro-ze-
laian.

Abenduak 26, astelehena

–16:00-21:00: Gabonetako Jolas Parkea,
kiroldegian.

–16:00: Bilbora arratsalde pasa, Gazte
Estazinotik.

Abenduak 27, martitzena

–Gabonetako Jolas Parkea, kiroldegian.
–Truke Azoka, Gazte Estazinoan.

Abenduak 28, eguaztena

–Gabonetako Jolas Parkea, kiroldegian.
–Inuzente Eguna. Filma, Gazte Estazi-
noan.

Abenduak 29, eguena

–Gabonetako Jolas Parkea, kiroldegian.

Abenduak 30, barikua

–Gabonetako Jolas Parkea, Kiroldegian.
–Ganekogortara urteera, Gazte Estazi-
noaren eskutik.

Abenduak 31, zapatua

–08:00: Peña Morara urteera, egun erdi-
koa, Arroeta Mendi Taldearen eskutik.
–10:00: Gabon Zaharreko plater-tiroko
saioa, Zamudio Ehiza eta Arrantza alkar-
tearen eskutik, Teknologia Parkeko tiro-
zelaian.



–01:00-05:00: Urte amaierako kotilioia,
Adintsuen Etxean.

Urtarrilak 2, astelehena

–Arrastian zehar, postreak egiteko taile-
rra, Gazte Estazinoan.

Urtarrilak 3, martitzena

–17:30: Zezeileko programazinoa antola-
tzeko batzarra, Gazte Estazinoan.

–19:30: Just Dance bideo-jokoaren Wii
lehiaketara, Gazte Estazinoan.

Urtarrilak 4, eguaztena

–Filma, Gazte Estazinoan.

Urtarrilak 5, eguena

–19:00: Urtebarriko jaia, Gazte Estazi-
noan. Luntxa eta disko-festa izango dira
bertan.



Loiu

Abenduak 24, zapatua

–12:00: Olentzero Elotxelerrin.
–17:00: Olentzero Zabaloetxen.

Abenduak 27-28

–18:00: Haurrentzako ekintzak, Elotxele-
rriko Zentro Zibikoan.

Abenduak 29, eguena

–Gabonetako Umeen Parkera urteera,
(BEC!).

Abenduak 31, zapatua

–Gorbeia igoera, Loititik autobusez.

Urtarrilak 4, eguaztena

–11:30-13:30 eta 16:30-19:30: Haur Par-
kea, Zabaloetxeko frontoian.

Derio

Abenduak 17-21

–Derioko VII. Argazki-Lehiaketaren Argazkien erakusketea, Kultur Birikan.

Abenduak 19-23

–Olentzero solidarioa, Kultur Birikan.

Abenduak 21 eta 22

–Olentzero eta Mari Domingi egongo dira gutunak hartzen.

Abenduak 21, eguaztena

–19:30: Gabonetako bingo berezia, Nagusien Etxean.

Abenduak 24 eta 31

–10:00: Ekintzak eta kirol jokoak familian, kiroldegian.

Abenduak 24, zapatua

–17:00: Olentzero eta Mari Domingiri harrera, Errekalde parkean.

Abenduak 26, astelehena

–20:00: Abesbatzen kontzertua, San Isidro elizan.

Abenduak 27, martitzena

–20:00: Gabonetako Gala, Kultur Birikan.

Abenduak 28, eguaztena

–18:00: Nagusien jaia, Kultur Birikan.

Abenduak 30, barikua

–11:00-14:00 eta 17:00-19:00: Gabonetako Umeen Parkea, kiroldegian.

Abenduak 31

–11:00: Aldibereko xakea, kiroldegian.

Urtarrilak 5, eguena

–18:00: Erregeen kabalgata. Urteera Kultur Birikatik eta agurra udaletxean.

Urtarrilak 7, zapatua

–18:30: Gabonetako ekitaldia, Lainomendi dantza taldearen eskutik, frontoian.

Urtarrilak 13, barikua

–20:30: Gospel euskeraz, Gurea Aretoan.



a: Juanjo Ortiz Llamosas

Sondika

Abenduak 18, domeka

–11:45: Txuma Olague eta Alzaga abesbatzaren Gabonetako kontzertua, San Juan Bautista elizan.

Abenduak 20-30

–XXV. Gabonetako postalen lehiaketea, erakusketa aretoan.

Abenduak 24, zapatua

–17:00: Olentzero eta jaiotza ibiltaria, herritik zehar.

Abenduak 29 eta 30

–12:00-14:00 eta 17:00-20:30: Txiki Eguna 2016, Goronda Beko kiroldegian.

Urtarrilak 5, eguena

–18:00: Errege Magoen desfilea, antzinako aireportuko terminal oihan.



Upper room taldea



Humaning

Garapen eta Transformazio
Pertsonaleko Zentroa

Astintze 2, 1. C
48160 DERIO
606.39.33.45

www.humaning.es
info@humaning.es

Kabinete terapeutikoa

Deskodetze Biologikoa
Coaching Emozionala
Hazkunde pertsonala
Psikologia Positiboa
Obesitatea eta gehiegizko pisua
Trebakuntza-zentroa

Ikastaroak

YOGA
PILATESA
MINDFULNESS

Larrabetzu

Abenduak 22, eguena

–19:30: Izar Argiaren gabonetako kontzertua, Andra Mari elizan.

Abenduak 23, barikua

–20:00: Gaztelumendi abesbatzaren kontzertua, Andra Mari elizan.

Abenduak 31, zapatua

–Urieri Bueltia VII. lasterketa.

Urtarrilak 4, eguaztena

–16:00etatik aurrera: Puzgarriak, frontoian.

Urtarrilak 5, eguena

–18:30: Nagusientzako txokolatadea eta dantzaldia, Gure Etxean.



Gaztelumendi abesbatza

Erandio

Abenduak 23, barikua

–18:30: Olentzero eta Mari Domingiri bisita, herritik zehar.

Lezama

Abenduak 24, zapatua

–17:00etatik aurrea: Olentzero Eguena. Musika, Ekidazu abesbatzaren kontzertua, haur dantzak, Olentzeroren kalejireia, gaztainak eta ardoa, gozoak...

Urtarrilak 3 eta 4, martitzena eta eguaztena

–11:30etatik 13:30etara eta 16:30etatik 20:30etara: Gabonetako Umeen Parkea.

Hori Bai (Larrabetzu)

a: Ibai Arrieta



Abenduak 23, barikua

–15:30: Olentzeroren bila, plazan.

–21:30: Joseba Tapia eta besamotzak. Musika.

Abenduak 24, zapatua

–18:00: Olentzero, Serran.

Abenduak 25, domeka

–19:00: Bertso saioa: Andoni Egaña, Sus-trai Colina, Onintza Enbeita eta Beñat Ugartetxea. Ostean, DJ Bull.

Abenduak 31, zapatua

–Urieri Bueltia. Eguerdia, plazatik hasita.

–Gauean kotilloia: Zoologikoa.

Urtarrilak 6, barikua

–17:30: *Adar bakar txikiaren kondaira* filmaren proiektzioa. Ostean, txokolatadea.

Urtarrilak 7, zapatua

–09:30: Auzoz-auzo, herriko plazan.

Urtarrilak 12, eguena

–18:00: *Beti Bezperako Koplak*, animazio-laburmetraiak.

Urtarrilak 13, barikua

–21:30: Sarkor eta Mocker's taldeen kontzertua.

Urtarrilak 14, zapatua

–Danok Bilbora.





Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior

gurearen zaporea



Eusko Labelek marka ziurtatuko kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkizu.

Gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. Euskadin ekoitzitako, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak.

Eusko Label erosita kalitate gorenekoa eskuratzeaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu.

Gureak ematen duen gozamina.

hazi
LANAK, PRODUKTUAK ETA LURRALDEAREN KULTURAREN
DIBULGATZEA, KONTSERBATzea, LUTURAKETA, ETXERAREN KULTURAREN



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTUAK
EUSKO JAURLARITZA
DEPARTAMENTUAK
EUSKO JAURLARITZA

Zamudioko ondarea

Labayru ikastegiak Zamudio: bizimodua eta ohiturak liburua argitaratu dau

t/a: Gaizka Eguzkitza

“Azken urteotan izugarri aldatu da bizimodua. Lehen, nekazaritzan eta abeltzaintzan egoan oinarrituta eta gero industriak hartu eban garrantzia. Liburuan herri ondarea jaso gura izan dogu, hau da, lehengo bizimodua zein zan eta zelango bilakaera egon dan azaltzea”, esan deusku Akaitze Kamirugak, Zamudio: bizimodua eta ohiturak liburuaren egile nagusiak. Akaitze Labayru ikastegiko Herri ondare bilketarako arduraduna da eta Zamudiokoa *Geureak-Herri ondare* bildumaren seigarren alea da. Besteak beste, Laukiz, Morgak, Mungiak eta Bediak osatzen dabe bilduma.

Zamudioko Udalak hartu emonetan jarri zan Labayrugaz eta herriko ondarea berreskuratzeko liburu bat eskatu eutsan. 2013an, Akaitzek eta bere taldeak (Ziortza Artabe, Ziortza Eguren eta Jaione Bilbao) alkarrizketak egin eutsien 30 zamudioztarri, bakotzak bere bizitzaren barri emoteko. Guztira, 60 orduko grabazioak egin ebezan. Testigantza horretako zatitxo batzuk Labayruren webgunean jarteko asmoa dabe. “Lagina ahalik eta anitzena lortzen

“Geurea ez da lan bibliografikoa, gure oinarria lekukoek esaten deuskuena dalako”

Egileek bereziki zaindu dabe hizkuntza. Izan be, liburua Zamudioko euskeraz dago idatzita

saiatu ginan: emakumezkoak eta gizonezkoak, bakotxaren bizimodua batez be antxina erabat desbardina zalako, zenbait ogibidetan dabilzan lagunak, leku desbardenetan bizi diranak...”

Liburua 10 ataletan dago banatuta. Labayrukoek herria, auzoa, etxea, heriotza, elikadura, nekazaritza, abeltzaintza, ogibideak, aisialdia eta herri egutegia hartu ditue hizpide. Ganera, antxinako zenbait argazki dago liburuan. “Geurea ez da lan bibliografikoa, gure oinarria lekukoek esaten deuskuena dalako, eurak gogoratzen dabena edo eurei gurasoek kontau eutsiena. Bitxia da lekukoek beti pentsetan dabelako, bere jakituriak ez dauela ezelango garrantziarik. *Taloea egu-nero egiten genduan, zergaitik da hori hain garrantzitsua, ba?*, pentsaten dabe (kar, kar)”.

Egileek bereziki zaindu dabe hizkuntza. Izan be, liburua Zamudioko euskeraz dago idatzita. “Lekukoek eurak erabili ebezan berbak erabili doguz: *aldaparra, giñarra, aspiea, laratzua, zerreina, gardostu...* Eta lehenengo aldiz *Geureak-Herri ondare* bilduman, Udalak holan eskatu deuskulako, atal bakotzak laburpen txikia dauka bai gaztelaniaz, bai ingelesez. Zamudion erdeldun asko dago, eta



Udalak zamudioztar guztiek informazioaren barri eukitea gura izan dau. Bessetik, ingelesa garrantzitsua da, Txorierri gero eta turista eta erromes gehiago hurbiltzen dalako”.

Zamudio

Udalak zamudioztarren artean banatuko dau liburua, baina herriko lagunez aparte, ziur asko jente askori interesauko jako alea. “Zamudio eta inguruko herrietako bizimodua nahiko antzekoa zan. Zamudioztarrak dira protagonistak, baina herrikoak ez diranei be gustauko jake liburua, ohiturak, jatekoak, arropa eta abarreko kontuak eurak be ezagutu

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

RPN 184TH

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18



egin ebezalako". Eta liburua horrexegaitik izango da arrakastatsua, "herri baktxaren bizimodua islatzen dauelako".

Ganera, horrelako lanak beste herrietan aurkeztu dituenen be jentea oso pozik ibili da. "Askotan nagusi batzuek hurbildu jakuz eta hauxe esaten deuskue: *Ai, zelango oroitzapenak, zenbat denpora horretaz pentsau barik!* Normalean jentea interesa adierazoten dau, geure historia horixe dalako. Liburua aurkezten dogunean, 30 minutuko bideoa prestaten dogu eta bertan testigantzen zati bat erakusten dogu. Jenteak hori ikusi dauenean, hunkituta gelditzen da eta, ganera, beti dinoe labur egiten jakela (kar, kar)".

Liburuak herriko ondareari eustea dau helburu. "Ondarea garrantzitsua da gaur egun egiten doguzan ohitura batzuk nondik datozen eta zergaitik egiten doguzan jakiteko. Ume txikien eretxiz, Halloween da arrunta, eta agian ez dakie hemen be kalabazak hustu egiten zirala eta lagunak ikaratzeko erabiltzen zirala. Halloween gauza barria da eta errotu egingo da, ohiturak be aldatu egiten diralako. Ezin gara gure burbuilan bizi, ondarea eta bizimodua biziak dira eta aldatu egiten dira. Dana dala, nik uste dot geurei eutsi behar deutsegula". Zamudioztarrak liburu horrerri esker, euren ondareari eutsiko deutsie.




LARRABETZU
☎ 94455 81 97
LOROÑO BEHEKOA (BIZKAIA)



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Peiukeria
Estetika

94 455 81 44
Arguleri 2, behe Larrabetzu-Bizkaia

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikazkiak, orokorrean
Asanblakom konpartitak
Mantimotzko garbi-ikazkiak
Bulegoak eta lokalki
Otrra enasterako garbiketa
Baxietarak
Zabor bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai leaguru Facebooken



FRUTAK BARAZKIAK

Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel

Gaztelumendi, 3 - behe | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19



Djanguina Soumare



José Miguel Somavilla



Luis Escudero

Baratz komunitarioen erremedioa

Duela hiru urte, Derioko Seminarioak atzekaldeko futbol zelai bat alokatu zion Cáritas GKEari. Gobernu kanpoko erakundekoek AlkarLANDa ekimenaren izen bereko proiektuari hasiera eman zieten bertan, lanbide sozial eta solidarioaren inguruko ikuspegi integraladun proiektua, nekazaritza esparrukoa. Helburu nagusia ahultasun egoeran dauden pertsonen aukerak ematea da, aktibitate fisikoa eta psikologikoa, perfil profesionala eta gaitasun mentalak landuz.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Egunero, 09:00etatik 13:00etara 10 pertsonako lantaldea ikusi daiteke lurra lantzen, haziak landatzen eta baratze lanak egiten Seminario atzean. Eszena xelebrea da, nekazari horiek indabak, espinakak, marrubiak eta kuiatxoak batzen dituztelako futbol aulkien artean. “Zorarena izan zen hasieran”, azaldu du Joxi Senosiainek, Cáritaseko baratzezaintza monitoreak: “Bertan behera utzitako futbol zelai erdia utzi ziguten, eta lurra lantzen hasi ginenean are lodi piloarekin egin genuen topo, landatzeko makina bat arazo eman ziguna”. Monitoreak ez du erraz ahaztuko zer nolakoa izan zen hasierako egoera: “Bertan ez zegoen landatzerik. Hasieran lanak eman zituen lurrak, eta barazkiak oso txikiak izan arren, gaur egun lurra astiro-astiro egonkortu da eta emaitzak askoz hobeak dira”.

“Ahultasun egoeran dauden pertsonen aukerak sortu nahi dizkiegu, landa esparruan kasu honetan”

AlkarLANDa proiektuaren helburua bikoitza da: alde batetik, lan trebakuntza eta esperientzia eskaintzea bertan parte hartzen duten pertsonen: “Gure helburua ahultasun egoeran dauden pertsonen aukerak sortzea da, landa esparruan kasu honetan”, azaldu du Alicia Susok, AlkarLANDa ekimenetik. “Beste alde batetik, formakuntza horren barne pertsona hauen jarrera eta emozioak bideratzen ditugu. Frustazioa dela eta, langabetu askok itxaropena galdu eta etsi egiten dute.

Gure asmoa horiek lanpetuta mantentzea da, bai formakuntzaren, bai lan esperientziaren bitartez”, argitu du Senosiainek.

Edonori zuzendutako proiektua izan arren, gizonezkoak ikus daitezke lanean batez ere: “Emakumeak ekartzea kostatzen zaigu. Oso gutxi igaro dira bertatik; etxe barruko lanak burutzeko neska ugari daude prest, baina baratze lan egiteko gutxi”, adierazi du Susok. Pertsona bakoitzak urtebeteko egonaldia egiten du bertan. Ez dago talde finkorik, pertsonak joan etorri egiten direlako. Jatorri eta adinaren dagokionez, bertara datozen langileen perfila anitza izan ohi da: Euskal Herritarrak, Estatu mailakoak eta atzerrikoak izan ohi dira, 20-45 urte bitartekoak. Egun hauetan Portugaleteko Luis Escudero, Bilboko José Miguel Somavilla eta Maliko Djanguina Soumare daude baratzean jo eta su: “Gaur hiru baino ez gaude

2017rako Egutegi Pertsonalizatuak

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

Parque Tecnológico de Bizkaia, 105 - 48170 Zamudio



www.cianoplan.es • 902 103 763



*“Langabetu askok
etsi egiten dute, eta
gure asmoa horiek
lanpetuta
mantentzea da”*

*“Gizarte honetan
mesfidantza nagusi da
eta, askotan, etorkina
izateak trabak jartzen
dizkie AlkarLANDakoei”*

hemen, gainontzeko zazpiak Gatikako baserri batera eraman dituztelako mantentze lanak egiten”, azaldu du Soma-villak. “Langabezian egonda, egin daitekeen azken gaua inaktibitatean egotea da”, azaldu du Joxik. José Miguelen kasuan, proiektuan parte hartzeaz gain, ortu propioa eskuratu du Derion, eta AlkarLANDako erremintez baliatuz mantentzen du.

Prestakuntzaren bidez perfil profesionala sortzen dute partaideek: “Hala ere,

bizi garen gizarte honetan mesfidantza nagusi da eta, askotan, etorkina edota ezezaguna izateak trabak jartzen dizkie AlkarLANDakoei”, adierazi du Aliciak. Hala ere, badira baratzera hurbiltzen diren partikularrak, euren lursailetan mantentze lanak egiteko pertsonak bilatzen dituztenak.

“Udaberria eta uda dira bertan lan egiteko garai aproposenak”, azaldu du Joxik. “Ortua kolorez jantzita egoteaz gain, askotariko lanak egin daitezke bertan”.

Pasa den urtean bigarren eskuko negutegi bi erosi, konpondu eta jarri zituzten euren kabuz bertan: “Horrela, neguan zehar azelgak, kuiatxoak eta bestelakoak hazten jarraitzen dugu”, azaldu du baratz zaintza monitorea.

Etekinen zati bat autokontsumorako izan ohi da, eta bestea Cáritas-eko Lapiko Catering enpresari dohaintzan ematen zaio. AlkarLANDa proiektuak arrakasta izan arren, etorkizunera begira zenbait helburu dauzka. Horien artean, garrantzitsuenak bi dira: lehena, proiektutik irten diren pertsonen landugabeko lursailetan lan egiteko aukera ematea. Bigarrena, baratz komunitario hauen fenomenoaz zuzpi haizetara zabaltzea.

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelcheuetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelanragoiti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANA JAKITZEN

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Ala-apaindegia
M^a Antonia Llodio

Txeremiko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Zer egin dezaket nik euskararen alde?



t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

Hara 2016ko Euskararen Nazioarteko Eguneko eslogana. Eslogan polita bezain beharrezkoa. Zergatik beharrezkoa? Hara.

Maria irakaslea da, Cenicerokoa. Urte laburretan lankide izan nuen. Ikasturtearen amaieran honelaxe esan zidan: "Nik urte bi eman nituen **zure** hizkuntza ikasten". Lehen unean harritu egin nintzen,

berak ondo darabil euskara-eta. Geroago erraz ulertu nuen **zure** horretan gordezten zen mezua. Mariak nirekin euskaraz berba egiten du, eta beste irakasle euskaldun batzuekin erdaraz aritzen da. Ez berak, ezta bere kideetariko askok, ez daukate helburuen artean Euskal Herrian integratzea. Euskaldunon hizkuntza oinarritzko maila instrumentalean ezagutzea nahiko dute. Fenomeno hau, gainera, herriz herri zein ikastetxerik ikastetxe hedatu da.

Oraingo milaka irakasle zein funtzionarioentzat, euskara berbeta funtzionala baino ez da, lanerako-edo balio duena. Elebidun bihurtzea ere -arrazoi askoren eraginez- desiragarria da, baina hain beharrezkoa ez.

Zentzuzko edozein irakasle edo funtzionarioek ulertu du, honezkero, Gasteiz edo Iruñeko Administrazioetik eskatzen dena, alegia, euskara ikasi egin behar dela. Erabiltzea, ostera, beste kontu bat da. Eskatu izan balitzaie -lan-mundu guztiari bezalaxe- erabili egin behar zela, erabiliko zuten, ezen pertsonen helburuaren arabera jokatzeko dute.

Mariak, borondate osoko zen sasoietan, "Ni Hautsontzikoa -Cenicero- naiz", azaldu zion euskaltegiko irakasleari, ikas-kideen barre eta algara artean. Zoritzarreako, irakasle hark ez zekien Cenicerokoa non zen ere.

Mariak urte bi eman zituen **zure hizkuntza** estudiatzen, eta ikasi ostean, ez dio inork bihotza irabazi, **zure** hori **neure** bilaka dakion.



**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cde. 517
COOP. SANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15



**ZAMUDIO
Loteria Nazionala**

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA



Sahelbarkari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49



**TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEAK
ETA UDALEK ZORIONAK
ETA URTE BARRI ON
OPA DEUTSUEZ**



DERIO | LEZAMA | LOIU | LARRABETZU | SONDIKA | ZAMUDIO

ASADOR FUENTENE berria
"ur eta itsaso ko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBIZ-AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
☎ 94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aretza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Unibe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

Garmendia ardoak

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Fax: 94 452 00 49

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" N

www.gaminiz.com

Sukaldaritza berritzailea

Eduardo Delgadoren eskutik



Mihi-arrain trontzo-zatiak Wakame algekin

Osagaiak:

- Mihi-arrain trontzo zati bi (txikiak eta garbituak).
- Wakame alga (belar-dendetan edo supermerkatuetan topa daitezke).
- Ura.
- Olioia.
- Gatza.
- 3,5 gr soja-lezitina.
- Eneldoa.

Prestatzeko era:

Prestatu salda mihi-arrainaren arantzekin, algekin eta eneldoarekin, eta erre-

serbatu. Atera algak saldatik eta salteatu. Salda banatu beharra dago: % 10a alde batera utzi behar da. Gainerakoari dago-kionez, berotu egin behar da eta, 60º-ra heltzean, soja-lezitina gehitu behar zaio: salda lezitinagaz emulsionatu behar du-gu airea sortu ahal izateko.

Jarraian, markatu mihi-arrain trontzoak eta salteatu algak oliotan. Plateran jartzeko, egin hau: isuri azpiko aldean ta jarri algak horren gainean. Muntatu mihi-arrain trontzoak algen gainean. Azkenik, jarri airea trontzoen gainean, kontu handiz.

RPA
MAYORISTAS INFORMÁTICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinea 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - http://www.rpamayoristas.com

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Etxeko sukaldaritza: Gabonetako menua

Maite Lekerikaren eskutik

Sarrera

Zainzuri zurien pudina

Osagaiak

- Zainzuri lata bat.
- 5 arrautza.
- 200 ml esnegain.
- Piperbaltz zuri apur bat.
- Gatza.
- Gurina eta ogi birrindua, molderako.

Prestetako erea

Prestatu moldea, gurinez uruneztatua. Txikitu zainzuriak, nahastau



beste osagaiak eta gehitu txikitutako zainzuriak. Irabiatu ondo eta bota moldera. Jarraian, sartu laba beroan, Maria bainuan: guztira, 160º-tan, 60-70 minutuz.

Ondoren, hotz dagoenean, atara moldetik eta moztu xerretan. Zerbitzerakoan, lagundu maionesagaz edo pikillo-piperren saltseagaz.

Pikillo-saltsea egiteko

Kipula txiki bat erregosi olio apur batez. Gehitu 8 pikillo-piperrak eta bost minutuz kozinatu. Horri gehitu 200 ml esnegain eta gatz apur bat. Ondo irabiatu. Saltsea prest dago.

Lehen platera

Erreboiloa, txakolin erara

a: hotelcondeduque.com

Osagaiak

- 2 kg-ko erreboilo bat (garbituta eta xerratan ebakita).
- 3 berakatz atal.
- 400 gr almeja.
- 200 gr ganba (garbituta).
- 250 ml txakolin.

- Perejila eta gazta.
- Oliba olio zurrusta bat.

Prestetako erea

Buztinezko eltze baten, ipini olio, berotu, eta bota berakatzak. Kolorea hartzen hasten direnean, sartu erreboiloa, xerra gatzetzatuak, almejak eta 125 ml txakolin.

Beste alde batetik, erre arraina su erdian, noizbehinka eraginez eta buelta emonez, zazpi minutu inguru. Jarraian, bota falta dan txakolina. Gehitu ganbak eta perejila. Eragin eta itxi beste 3-4 minutu, saltsea ligatu arte. Gatza gehitu, faltan badago, eta zerbitzatu.



Postrea

Sagar pudina

Osagaiak (8 lagunentzako):

- 500 ml esne.
- 250 ml esnegain.
- 3 molde ogi xerra.
- 5 arrautz.
- 200 gr azukre.
- Erregineta sagar handi bi (garbitu, txikitu eta ur apur batez egositakoak).

Prestetako erea

Alde batetik, karamelizatu labako pudin molde bat. Beste alde batetik, beratu ogia esnetan ordu laurden inguru. Nahastau eta irabiatu arrautzak, esnegaina eta azukrea. Azkenik, bota sagarrak eta esnea ogiagaz moldera, dana ondo nahastuta. Sartu laba beroan, 175º-tan, Maria bainuan, 45-60 minutuz. Eginda dagoela ikusi arte, itxi laban bertan, hotzitu arte. Hurrengo egunean aterako dogu moldetik.



*Gabonetan be
euskeraz bizi*

ZORIONAK

LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
ELKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

**Gabon zoriontsuak
lezamar eta
txorieritar guztioi**



BATAK BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

TOLDOS TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko Ionak



Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

*Zorionak eta
Urte Berri On*



Liliak
Loradenda

www.liliak.net
facebook: liliak loradenda
amalairementeria@euskalnet.net

Erdiko Kalea, 2 • DERIO
94 454 12 23

ETORKI TABERNA

*Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak*

Andra Mari Kalea, 1
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU
(Bizkaia)



POLITENA TABERNA

Andra Mari
Larrabetzu, Bizkaia
tel.: 94 455 84 07

Aliprox

Ondo pasa jaietan!

**INES
JANARI-DENDA**
Iturrikoetxea, 3
48195 Larrabetzu
T: 94 455 84 33

FOTERI TABERNA



Andra Mari Kalea, 22
Teléfono 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia

**Urte
zoriontsu
eta
euskalduna
opa dizue**



arrekkikili
Larrabetzuko euskara elkarteak



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Begoñaren itzalpean (Elkar), Jose Inazio Basterretxea.
- Esne eta eztizko lurra (Erein), Toti Martinez de Lezea.
- Dorrearen eta penduluaren arteko ituna (Erein), Amaia Iturbide.

HAUR ETA GAZTEENTZAT

- Bainera bete itsaso (Elkar), Miren Amuriza eta Irati Eguren (ilustratzailerak).
- Neskak eta mutilak - Norbera, den bezalakoa (Litera libros), Aingeru Mayor, Susana Monteagudo Duro.
- Erraldoiak (Elkar), Xabier Olaso Bengoa, Enrique Moreno Luque (ilustratzaileak).

MUSIKA

- Bother (Maldito records), Vendetta.
- Aske maitte, aske bizi (Altafonte network), Gatibu.

Sudoku

1			9	7	5			
5				4		2	6	
			3					9
4					7		2	6
3					4			
	6	2			9	7		3
6		5					3	2
	4							
					3			

5	7	4	3	6	9	8	1	2
8	1	6	2	5	7	3	4	9
2	3	8	1	9	5	4	6	7
3	4	7	9	1	5	2	6	8
1	9	1	8	3	7	5	2	6
7	8	4	3	2	6	1	5	9
5	3	9	1	4	8	2	6	7
3	8	4						

KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 – DERIO
Tel.: 944 54 29 36

HERBACITEGIA
URDAXITEGIA
IMAZ

MUNIZIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO
Eskeirik asko
etortzeagaitik

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

OK
OAKLAND
ENGLISH

IKASTARO TRINKOAK, UDAN
MAILA GUZTIAK

946522857
LEHENDAKARI
LEIZAOLA PLAZA, 2
48170 ZAMUDIO

Txorierrri Et., 30
48150 SONDIKA

94 453 35 05
667 78 63 31

**PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA**



ALTZARA
Sondikako euskara elkartea

ORIONAK
URTE BERRI ON!

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

EGUNEROKO
PRENTSA,
SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxo:
94 452 29 10

**LIBRERÍA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
pápergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

IBARRONDO

FISIOTERAPIA
JARRERA-BERREZIKETA
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3
48150 SONDIKA
Tel. 94 453 92 00
Mugikorra 617 674 202
Mugikorra 688 601 871
fisiobarrondo@gmail.com

ed
electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

*Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta*

Aizkorri Kalea, 1 - Telf. / Fax: 94 454 31 48 - 48160 DERIO (Bizkaia)

OPTIKA
moderna

Ikusmena graduatzea
Zenbait motatako betaurrekoak
Lentillak egokitzea

Aizkorri, 1
48160 Derio

94 454 37 99
www.opticomoderna.es

HARRI-BILBO
HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARKUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARROBIA: DURANGON
E-mail: recupesaharribilbo@euskalnet.net

LANTEGIA:
Kurtzea Industrialdea, z/g • 48196 LEZAMA
94 452 10 71

ERAKUSTORIA:
Itxaropena, 2 • 48100 MUNGIA
94 674 33 40

GABON ZAHAR GAUEKO KOTILIOIA

01:00etik aurrera

ban
BASERRI ANTZOKIA

DJ Alai

Kotilioi poltsa

Edari bat

Zozketak

**Sarrerak salgai:
Baserri Antzokian**

10 euro



**LASTER
ERAIKIKO
DIRA**



18

**etxebizitza kooperatiban
kostu-prezioan**

2, 3 eta 4 logelakoak, garajea, trastelekua eta
hornitutako sukaldia barne.

184.500 €-tik hasita

Duplexak eta atikoak terraza zabalekin.

26

**udal etxebizitza tasatuak
kooperatiban kostu-prezioan**

2 eta 3 logelakoak, garajea eta trastelekua barne.

152.500 €-tik hasita

Atikoak terraza zabalekin.

GESTIOA:



INFORMAZIOA ETA SALMENTA:



656 78 12 41
arteagabizigunea.com

FINANTZIAZIOA:

